



BAJA-PARTEAK/MEDIKU- JUSTIFIKAZIOAK

1060/2022 Errege Dekretuak, abenduaren 27koak, uztailaren 18ko 625/2014 Errege Dekretua aldatzen duenak (aldi baterako ezintasunagatiko prozesuen kudeaketaren eta kontrolaren alderdi jakin batzuk arautzen dituena lehen hirurehun eta hirurogeita bost egunetan), aldaketa batzuk sartu ditu aldi baterako ezintasun-prozesuekin eta baja-parteekin lotuta.

Indarrean sartutako aldaketa horiek direla eta, zirkular hau argitaratzen da Sail honen ordezkapen-procedura Legeak onartutako betebehar berrietara egokitzeko.

PARTES DE BAJA/JUSTIFICACIONES MÉDICAS

El Real Decreto 1060/2022, de 27 de diciembre, por el que se modifica el Real Decreto 625/2014, de 18 de julio, por el que se regulan determinados aspectos de la gestión y control de los procesos por incapacidad temporal en los primeros trescientos sesenta y cinco días de su duración, ha introducido algunas novedades relacionadas con los procesos de incapacidad temporal y los partes de baja.

Debido a la entrada en vigor de las citadas modificaciones, se emite la presente Circular con el objetivo de adecuar el procedimiento de sustituciones de este Departamento a las nuevas obligaciones introducidas por la Ley.

2023ko apirilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Hezkuntza Sailari atxikitako **Gizarte Segurantzako Araubide Orokorreko langileek** honela jokatu beharko dute aldi baterako ezintasuneko (AE) prozesu baten ondoriozko ordezkapena kudeatu ahal izateko:

- Aldi baterako ezintasuna aitortu dion medikuak sinatutako baja-partea edo horren kopia lortu beharko du.
- Baja-partea ikastetxeko zuzendaritzari eman beharko zaio, dagokion ordezkapena ahalik eta lasterren egin dezan. Ez da zinpeko aitorpenik onartuko, eta, beraz, ezinbestekoa izango da baja-partea edo horren kopia aurkeztea ordezkapena betetzeko.

Con efectos desde el **1 de abril de 2023**, el personal incluido en el **Régimen General de la Seguridad Social** adscrito al Departamento de Educación tendrá que proceder de la siguiente forma para poder gestionar su sustitución con motivo de un proceso de Incapacidad Temporal (IT):

- Deberá obtener el parte baja o copia del mismo por parte del personal médico que le ha declarado en incapacidad temporal.
- El parte de baja deberá ser aportado a la Dirección del centro para que pueda cursar la sustitución correspondiente con la mayor brevedad posible. No se aceptarán declaraciones juradas, por lo que la presentación del parte de baja o copia del mismo será indispensable para la cobertura de la sustitución.



- Datu pertsonalak babesteko arrazoia direla eta, aldi baterako ezintasun-egoeran dauden langileek gaixotasunari edo mediku-aginduari buruzko informazioa edo absentziaren arrazoia, dokumentuan ageri dena, ezabatu edo estali ahal izango dute, baina, betiere, aldi baterako ezintasunak ondorioak noiz sortuko dituen jaso beharko da.
- Por motivos de protección de datos de carácter personal, el personal declarado en incapacidad temporal podrá tachar o hacer que no sea visible la información relacionada con la enfermedad o prescripción médica o el motivo de su ausencia que figure en el documento, pero siempre deberá constar la fecha de efectos de la misma.
- Baja-partea aurkeztu ezean, ezin izango da haren ordezkapena izapidetu, harik eta aldi baterako ezintasun-egoera egiaztatu arte.
- El incumplimiento de la aportación del parte de baja supondrá la imposibilidad de poder tramitar su sustitución hasta que no haya quedado acreditada la misma.

Ikastetxeen justifikatu beharreko mediku-kontsultetara, espezialistengana eta abarretara joateagatiko justifikazio medikoen kasuan, baja-parterik ematen ez den kasuetan, honela jokatuko da: asistentzia justifikatu beharko da osasun-zentroak sinatutako dokumentu ofizialaren bidez. Dokumentu horretan, gutxienez, datu hauek jaso beharko dira: kontsultara joan den pertsonaren identifikazio-datuak, sinadura eta kontsulta-lekua. Datu medikoak edo kontsultari edo espezialistari buruzkoak ezabatu edo estali ahal izango dira datu pertsonalak babesteko, baina osasun-zentrora edo espezialistara joan izana frogatuta geratu beharko da dokumentuan. Hau aplikagarri izango da Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorreko langileei baita MUFACEkoei ere.

Eskakizun horiek Hezkuntzako langileak ordezteko irizpidearen berezitasunari erantzuten diote. Irizpide horren ordezkapenak egunero egiten dira, eta langileen absentziak eskaera egin eta hurrengo egunetik betetzen dira. EAEko osasun-sistemaren eta Eusko

En el caso de justificaciones médicas a realizar **en el centro** por asistencia a consultas médicas o de especialistas etc. que no supongan la emisión de un parte de baja, se procederá de la siguiente manera: deberán justificar la asistencia mediante el documento oficial firmado por el centro médico en el que deberán constar como mínimo los siguientes datos: datos identificativos de la asistente a la consulta, fecha firma y lugar de la consulta. Los datos médicos o relativos a la consulta o del especialista podrán ser borrados o eliminados por motivos de protección de datos de carácter personal, pero deberá quedar probada la asistencia al centro de salud o especialista. Esto aplicará tanto al personal en Régimen General de la Seguridad Social, así como al personal de MUFACE.

Las exigencias anteriores obedecen a la peculiaridad del criterio de sustitución del personal de Educación, que se realiza con periodicidad diaria y se cubren las ausencias de su personal desde el día siguiente al de su solicitud. Si bien la interconexión entre el sistema de salud de



Jaurlaritzaren arteko lotura nahiko azkarra eta eraginkorra bada ere, kasu askotan aldi baterako ezintasunei buruzko informazioa ez da berehala iristen, eta Sail honen egungo ordezkapen-politikak eskatzen duena baino denbora luzeagoan prozesatzen da. Horregatik, zirkular hau ematen dugu, ikastetxeak eskaera egin eta hurrengo egunetik aurrera estaldura bermatu eta ziurtatzeko.

la CAPV y el Gobierno Vasco es bastante rápida y eficaz, en muchos casos la información relativa a las incapacidades temporales no llega de forma inmediata, procesándose en un lapso de tiempo superior al que requiere la actual política de sustituciones de este Departamento. Es por ello, que, emitimos la presente Circular para garantizar y asegurar su cobertura desde el siguiente día al de la solicitud del centro.

**LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN DE GESTIÓN DE PERSONAL**